

PRENTSA-OHARRA

Teknikerrek BIEMHan aurkeztuko ditu egungo eraldaketaren erronka handiei erantzuten dieten hainbat teknologia

- *Tekniker zentro teknologikoak Makina Erremintako Nazioarteko Biurteko Azokaren aurtengo edizioan fabrikazio aurreratu zeharkako konponbideak makina-erremintaren sektorerako, fabrikazio aurreratuaren, eraldaketa digitalaren eta jasangarritasunaren erronkei erantzuten dietenak*
- *Zentro teknologikoak mantentze lan prediktiboan, adimen artifizilean, laser teknologian, doitasunezko ingenieritzan eta metrologian egindako aurrerakuntzak erakutsiko ditu*
- *Teknikerren standa Bilboko BEC!-ren 1 pabiloian, C14 korridorean, kokatuko da, ekainaren 13tik 17ra*

[Eibar, 2022eko ekainak 8] - Ingurumen, energia eta digital-erronkek eraldaketa global handiak bultzatzen dituzten testuinguru honetan, funtsezkoa da modu iraunkorrean erantzutea fabrikazio aurreratuaren eta gure industria-ingurunearen esparruan, eta makina-erremintaren sektoreak irtenbide errentagarriagoak eta iraunkorragoak eskatzen ditu, aldi berean lehiakortasuna eta eraginkortasuna hobetzeko.

Tekniker zentro teknologikoak, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) kidea, Makina Erremintaren Nazioarteko Biurteko 2022ko hurrengo Azokan (BIEMH) aurkeztuko ditu erronka exigente horiei erantzuten lagunduko diguten zeharkako teknologiak erakutsiko dituzte, beti ere, fabrikazio aurreratuan, arduratsuan eta jasangarrian oinarrituta, eta produktuen eta prozesuen kalitateari eutsiz.

Testuinguru horretan, Teknikerrek diziplina anitzeko ikuspegi batetik fabrikazio aurreratuko sistemen hobekuntzan eragina izango duten teknologiak bildu nahi ditu. Horretarako, eta BIEMHaren esparruan, zentroak zenbait elementu aurkezten ditu, hala nola ekipamendua diseinatzeko eta garatzeko doitasun-ingeniaritza, fabrikazio-prozesuetako aurrerapenak

(konbentzionalak eta ez-konbentzionalak) eta horiek sistema osoan duten interakzioa, eta kontrol- eta konpentsazio-estrategia berriak garatzen ditu, monitorizazio-prozesuetan eta makina karakterizatzeko tekniketan, hainbat mailatako eredu digitaletan eta adimen artifizialeko beste elementu batzuetan oinarrituta. Historikoki, guztiak egon dira zentroaren espezializazio teknologikora lotuta, eta, aldi berean, inpaktu orokorraren gaur egungo erronkei erantzuten diete (klima-aldaketa, jasangarritasuna, digitalizazioa, mugikortasun jasangarria eta abar). Hala, oso elementu arruntak aldatu dira; adibidez, zentroak standera eramango dituen informazio-liburuxken papera haziz eginda dago (papera jasangarria da, eta landatu daiteke), jasangarritasuna jarduera osora hedatu duela erakusteko.

Demostratzaileak eta enpresa kolaboratzaileak

Hortaz, Teknikerrek hurrengo arloetako bere gaitasun teknologikoen lau demostratzaile eramango ditu nazioarteko azokara: mantentze-lan prediktiboen kudeaketa, adimen artifiziala, fabrikazio gehigarria eta beste laser bidezko prozesu batzuk eta metrologia eta doitasunezko ingeniari-tza.

Batetik, standean, aktibo industrialen mantentze lan prediktiborako zentroak duen potentzial guztia ikusi ahal izango da, jasotako datuak aplikazio digitaletan sar daitezkeen teknologien bidez bistaratuz eta biltegitratuz.

Hala izango da, besteak beste, Zayer, ONA, Lanbi, GH Cranes & Components, Goialde High Speed eta Gamesa Gearbox entitateentzat, Teknikerrekin batera lan egin dutenak halako irtenbideak garatzen.

Halaber, Teknikerrek bin pickingeko aplikazioetarako bere zelula errobotikoaren bitartez aurkeztuko ditu adimen artifizialeko garapenak, pertsonak makinekin elkarreragiteko, ahoz edo keinuz, ingurune industrialetan. Erreka, Cikautxo, MIM TECH ALFA eta Lantegi Batuak enpresek hartu dute parte halako garapenetan.

Halaber, zentro teknologikoak erakusketa gunean ABC eta Siemens Energy enpresentzat fabrikazio gehigarriarein (LMD) egindako hainbat pieza erakutsiko ditu; eta baita mikrozulaketa, testurizatu eta bestelako hainbat industria prozesuren bitartez egindakoak ere.

Azkenik, azken demostratzailean, Teknikerrek inspektzioa eta neurketan dituen soluzioak erakutsiko ditu robot industrialaren erakusle baten bidez, orri baten lodieraren neurri baliokidea den 0.1 mm baino gutxiagoko posizionamendu absolutuaren doitasunarekin, lan-bolumen osorako.

Jakintza metrologiko hori errobotika kirurgikoko inguruneetan ere aplikatu du Cyber Surgery enpresarekin, eta makina erremintaren sektorean Zayerrekin lankidetzan.

Teknikeri buruz

Tekniker fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-ren bidez gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Informazio gehiago:

GUK ► Unai Macias

unai@guk.es | Tel. 690 212 067